

Hitzordu

Bularretik Mintzora



Haur txikien artean irakurketa sustatzeko egitasmoa

ITZIAR ZUBIZARRETA



Gure gizartean ahots ugari altxatzen ari dira gazteek dituzten irakurketa ohitura eta hartan erakusten duten maila dela-eta zeharo kezkatuak. Irakasle, guraso eta adituen ahotsetan zerbait ez da behar bezala egiten ari; zerbaitek huts egiten du hainbeste esfortzu egin eta halako ondorio urriak jasotzen direnean. Dударik gabe gizartearen ohiturak aldatu egin dira eta kultura transmisioan lehen familiak betetzen zuen papera dagoeneko ez du betetzen; familiak murriztu egin dira eta lehen aitona-amonek kontaktzen zituzten ipuinak, erabiltzen zituzten hitz-jolas eta kantak inork ez ditu gogoratzen.

Eskolaren esku utzi dira lehen familiak irakasten zituen hainbat eta hainbat gauza, bai osasun, gizalege ohituren ingurukoak, baita ikasketa eta kontzeptuei dagozkien neurrikoak. Erakunde publikoek hartu behar izan dute erronka hau eta ahal den moduz, erantzuna ematen saiatu dira. Baina bistan denez, eta neurketa publikoek aldarrikatzen dituzten datuen arabera, oraindik gure herrian urruti gaude emaitza onak jasotzetik.



Eskolako ikasketek bakarrik ez dute bermatzen irakurketa maila egokia lortzea. Ikasketa batzuk bideratuak dauden moduan, ez dira testuen ulermena eta interpretazioaren beharrik hainbat eduki gainditzeko, eta maila gorenetan porrota ikusgarria suertatzen da, azkenean nahiko trebeziarik ez dutelako ikasleek testuen xehetasunak ulertzeko.

Hala ere azken ikerketek erakusten dutenez, familiako giro kulturalak ere zer ikusi handia du porrota honetan. Familiako ohiturak nahikoa determinanteak omen dira eta egungo familiek ez dute irakurketa ohiturak sustatzen. Ohitura horiek ez dira bakarrik eskolan sustatu behar, nahiz eta eskolak paper garrantzitsu bat hartu prozesu honetan. Familiak eskolak adineko garrantzia du irakurketa ohiturak sustatzeko unean. Honek ez du esan nahi guraso irakurle guztiek seme-alaba irakurle izango duenik. Izan ere imitazioak garrantzi handia baldin badu sustaketa prozeduretan ere, animatzaile eta transmisore onak behar ditu irakurketak gaztetxoan irudimenean mundu erakargarri bat sortzeko irakurketarekin batera.

Beraz, irakurketa sustatzeko egitasmo bat irudikatzen dugularik, gutxienez hiru norabide jorratu behar dira haren garapenerako, besteak beste: familia, eskola eta erakunde publikoak (liburutegiak, udalak, Osakidetza...)

Zer da «Bularretik Mintzora»

Egitasmo berri hau kanpaina sistematizatu bat izateko bokazioz jaino da. Haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago.



Bi helburu nagusi ditu:

0-6 adin tarteko haurren irakurketa ohiturak sustatzea; bide horretan gurasoak eta hauren hezitzaileak beraien ingurune naturalean (etxean, eskolan eta liburutegian) lagun dituztelarik.

Egoitza hauetan, giro irakurle bat sortzeko bideak jorratzea eta modu natural batean irakurtzeko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatzea.

Noski, kanpaina hau pausoz pauso joango gara martxan jartzen, emaniko urratsak ebaluatu eta ondorioak kontutan hartuko ditugu hurrengo pausoak markatzeko.

Zergatik kanpaina hau

Haurrek jaiotzen direnetik gauza asko behar dituzte modu egokian garatzeko: inguruarekin komunikatu (bere gurasoekin, zainzaileekin...), errealitatea pixkanaka ezagutu eta horretan segurua sentitzea eta beste hainbat eta hainbat. Baina, behar horiek asetzeko, haur txikiek oraindik ez dituzte garatuak trebetasun kognitiboak, ezta hizkuntz trebetasunak ere gauzak eskatu eta adierazteko, honek bide luze bat eskatzen du.

Haur txiki horren beharrei aurre egiteko, bere inguruko helduek, «altxor» preziatu bat daukate. Hau modu egokian erabiltzen badute, ondorio magikoak sortuko ditu haurren adimena, hizkuntza eta emozioak garatzeko eta haiekin lotura afektibo sendo bat finkatzeko ere.

Altxor hori, irakurketa da. Haur txiki batek dasta dezake altxor horretatik baldin eta bere heldu horiek «irakurtzen ematen» badiote, jaten ematen dioten bezalaxe. Lehendabizi eta behin, irakurketaz ari garenean adin hauetan, testu eginak komunikatzeaz ari gara; beste modu batean esanda, testu jakin batez baliatzeaz komunikatzeko. Lehen hilabeteetan





sehaska kantak abestuz, errima xume eta goxoak xuxurlatuz, irudi simple batzuk eskainiz. Geroago, «irakurtzen ematea» ipuin bat kontatzea da edota poesia bat irakurtzea eta harekin jolas bat egitea. Orduan, irakurketa bera eta ipuina bera, oinarrizko behar batean bilakatzen dira haurrarentzat, errealitatea ezagutzeko estimulu anitzak eskaintzen dizkiolako, bere zentzumen guztiak suspertuz.

Alde horretatik «irakurtzen ematen» diogunean, haurraren garapen intelektuala, emozionala, soziala eta hizkuntzarena estimulatu ditugu. Horrez gainera, emozionalki ongi sentiaraziko diogu bere tentsioak lasaitzen dituelako, bere beldurrak uxatzen dituelako, ipuinak berak «sentiarazten» diolako eta gozamina sentitzen duelako, berak maite duen heldu horrekin memento goxo, zoragarri eta magiko bat pasatuz.

Zergatik izaten dira onura horiek guztiak? Sehaska kantu bat abesten dugunean, poesia bat irakurtzen ari garenean, marrazki bat haurraren aurrean jartzen dugunean edo ipuin bat kontatzen dugunean, haurraren maila psikologiko eta afektibo berean komunikatzen ari garelako; hau da, irudimenaren, fantasiaren, errealitatearen, posibilitatearen, keinuen eta hitzen joko-mailan jartzen garelako, alegia.

Lehenengo hilabete eta urteetan, errealitatearekin harremanak izateko, haurrak dituen komunikatzeko tresna nagusiak zentzumenak, mugimendua, erritmoa eta jolasa dira, batik bat. Tresna horiek aurkitzen ditu irakurketaren eta kontaktaren bidez heltzen zaizkion istorio txikietan, errimetan eta jolas erritmikoetan, nagusiek beren istorio txikiekin ematen dizkieten irakurketetan.

Beste aldetik, haur txiki horri «irakurtzen ematen» diogunean, komunikazio afektiboa sortzen da bera eta bere helduen artean. Gertakizun hori erabakigarria da lotura afektiboa finkatzeko. Lehenengo urteetan komunikazio hori zentzumenen bidez ematen da (hitza, ukimena, begirada, keinua...). Gero, irakurketa eta idazketaren aprendizaiarekin, beste bide bat zabaltzen da komunikazioan. Baina, heldu baten laguntza eta «presentzia» ezinbestekoa da komunikazio hori burutzeko.

Begira diezaiogun hizkuntzari eskolako esparrutik; ingurune logiko formala erakusteko bakarrik irakasten badugu hizkuntza: «hau mahaia da» edota antzekoak, hizkuntza hori erabat formala izango da, eskolarako bakarrik erabiliko dena, behar afektiboak beste nolabait adierazi beharko ditu haurrak (batez ere nerabezarora iristean), gaztelaniaz edo ingelesez.

Baina psikologoek garbi erakutsi digute gure jokabideak batez ere bizipen afektiboek eta emozionalek gidatzen dituztela. Hor dago, bada, koska: haurrak txiki-txikitandik hizkuntza afektiboaren beharra du, beraren behar nagusiak asetzeko, hizkuntza afektiboa eskaini behar zaio, batez ere. Eta hizkuntza afektibo hori mendeetan zehar bildurik, ondurik eta sustraiturik dauka poesiak, hala poesia herrikoiak nola jasoak.

Kanpainaren nondik norakoa

Egitasmo hau erabat berria da Euskal Herrian. AEB, Britainia Handian, Italian, Suedian eta Katalunian egindako antzeko egitasmoen ildo berean dago. Ekimen horiek guztiek haurren osasuna kontzeptu orokor eta oso gisa hartzen dute kontuan. Izan ere, frogatua dago txikienen osasunean literaturak eta irakurketa ozenak berebiziko garrantzia dutela: ipuin eta istorio txikien bitartez, abesti eta esku-jolasen bidez... zuzenean konekta daiteke haurren munduarekin, eta beraien beldur eta sentimenduekin.

Gurera ekarri dugunean, hainbat epe eta estrategia propioak markatu beharko ditugu, beste herrialdeetan egin den bezalaxe, gure beharrei erantzun nahian. Pausoz pauso, saiatuko gara aurrera ateratzen egitasmoa, gure herrian irakurketa-ohiturak bultzatzeko modu eraginkorrez.

Hiru egoitza izango ditu kanpaina honek. Hiruretarako formazio aukerak eta material sailkatua diseinatu ditugu, kanpainari hasiera emateko.

Etxea. Gurasoekin eta haurren zaintzaileekin: gomendio zerrenda bat, bibliografia egoki bat, eta maileguan eramateko liburuz beteriko kutxak.

Eskolatan. Bibliografia egoki bat, gomendio zerrenda bat, ikastaroak: Irakurketa-ohiturak nola sistematizatu eguneroko Curriculumean sartuz.


Liburutegia. Prestakuntza saioak gurasoentzat, bibliografia egokia; maileguan etxera eta eskoletara eraman daitezkeen liburu kutxak bertan zentralizatu dira.

Orain arteko urratsak

Sortutako materia

Bularretik mintzora liburu-diskoa, Itziar Zubizarretak zuzendu, Elena Odriozolak ilustratu eta Aurélio Edler Copésekin musikatu du. Orik 6 urtera bitarteko haur txikien guraso eta hezitzaileentzat bideratuta dago.

Kantatzeko, kontatzeko, jolasteko eta esateko eredu garbiak eskaintzen dira liburu-disko honetan, guraso eta irakasleek joko horiek ikasi eta hurrekin ahots biziaren erabiltzeko. Bestalde, musikak ez du





Egitasmoan parte hartzen duten adituak:

Hitzaldiak

JUAN KRUZ IGERABIDE (poeta)

Haur-literaturak, batez ere poesiak, haur-hizkuntza afektiboan duen eragina.

JUAN KARLOS ALONSO (psikologoa)

Haur-literaturaren eragina haurren garapen kognitiboan.

Ikastaroak

PELLO AÑORGA (ipuin-kontalaria eta idazlea)

Gurasoentzat: nola irakurri, konstatu, jolastu... Horretarako guztirako gune aproposak sortzea...

(8 ordu)

ITZIAR ZUBIZARRETA (ipuin kontalaria eta irakaslea)

Irakasleentzat: haur-literaturaren erabilpena nola txertatu curriculumaren barnean, noren sen literarioari uko egin gabe.

(8 ordu)

* «Bularretik mintzora» Liburu-diskoa Galtzagorriko web-gunean eskuragarri dago:

www.galtzagorri.org

hizkuntza estaltzen, ezta kadentzia bortxatzen ere, erritmo arrotzak inposatuz. Egitura horiek tradizioak guri ekarri dizkigun modura daude moldatuak, hizkuntzaren sena gordeta.

Liburu-disko honetan, literatur tradizioaren galerari aurre eginez, sehaska kantak, esku-jolasak, eta abar bildu ditugu; eta haurren irakurketa-ohiturak sustatzeko, hezitzaile eta gurasoentzako tresna egoki bat moldatu dugu, beren hurrekin erabil ditzaketen jolas, kanta eta ipuinak ezagutzeko.

Gomendio foiletoak

Aurkezpena: Bertan agertzen zaio irakurleari haur txikiei jaiotzatik «irakurtzeak» duen garrantzia haien garapen osoan.

Gurasoentzat: foileto txiki horretan, gurasoei gomendio praktikoak ematen zaizkie, beren hurrekin egunero gune berezi bat sortu eta han aritzeko kantari, irakurtzen edota poesiak esaten eta ilustrazioak dituzten liburuei begira.

Irakasleentzat: Gomendio praktikoz beteriko foileto txiki bat da hau.

Liburu-zerrenda: Bibliografia praktiko honetan, liburu-zerrenda askotarikoa eskaintzen zaie gurasoei nahiz irakasleei. Haurrek bakarrik erabiltzeko liburuak, gurasoek hurrei irakurri eta erakusteko liburuak, etxean edukitzeko moduko liburuak. Adinen garapenari ere begiratzen zaio; 0-3 urte bitarteko haurrentzat liburuak daude eta 3-6 urte bitartekoentzat ere bai. Liburu-zerrenda honek aldatzen joan beharko du, eta gomendiozko foiletoak ugaritzen.

Liburuen maletak

Liburuz beteriko hogeita hamar maleta osatu dira, liburutegitik etxetara mailegu gisa eramateko. Maleta guztietan, liburu aproposak eskaintzen ditugu etxean begiratzeko, irakurtzeko, entzuteko eta jolasak egiteko. Maleta bakoitzean, «Bularretik Mintzora» liburu-disko bat sartu dugu, eta gomendio foiletoak.

Material hori urtez urte berritzen joango gara, denetariko aukera desberdinak eskainiz, liburutegietako fondoak astindu eta haur liburu onak aditzera emateko, pixkanaka haur liburuaren kultura zabaltzeko.

Maleta horietako 20 liburu hiru eta sei urte bitarteko haurrentzat dira, eta beste hamarrak zero eta hiru urte bitartekoentzat.

